Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2023ko ekainaren 26a, astelehena — 122 — Lunes, a 26 de junio de 2023

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK — 1 — DISPOSICIONES GENERALES DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## GIZARTE POLITIKETAKO DEPARTAMENTUA

*11/2023 Foru Dekretua, ekainaren 13koa, Gipuzkoako Elkarrizketa Zibilerako Mahaia sortzen eta arautzen duena.*

Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legearen 7. artikuluak arautzen du elkarrizketa zibila eta foru aldundiei hainbat mandatu ezartzen dizkie, tresna egokien bidez elkarrizketak izan ditzaten Euskadiko Elkarrizketa Zibilerako Mahaiaren pare, baina beren lurraldean jarduten diren hirugarren sektore sozialeko sareekin.

Bestalde, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauaren 18. artikuluak xedatzen du Foru Aldundiaren arautzeko gaitasuna zabaltzen dela Autonomia Erkidegoko edo Estatuko legeak garatzeko foru dekretuak ematera. Eta gaineratzen du Foru Aldundiari dagokiola antolamenduko araudiak onartzea.

Ondorioz, Foru Aldundiari dagokio foru dekretu bidez betetzea lehen aipatutako maiatzaren 12ko 6/2016 Legean Gipuzkoako Elkarrizketa Zibilaren Mahaia sortu eta arautzeko ezarritako mandatua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko ekintza sozialeko hirugarren sektorearen elkarrizketarako eta instituzioetan parte hartzeko tresna gisa; Diputatuen Kontseiluari dagokio onartzea, maiatzaren 12ko 6/2005 Foru Arauaren 31.1.f) artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Historikoki, Gipuzkoako hirugarren sektore sozialak eskatu izan du Gipuzkoako Foru Aldundiaren plan eta programen prestakuntzan parte hartzea. Gipuzkoako gizartea nabarmentzen da esku-hartze sozialeko hirugarren sektoreko irabazi asmorik gabeko entitateen lanagatik, ekintza boluntarioagatik eta elkartasun antolatuagatik. Horrela, gogora dezakegu 2004an boluntarioak dituzten hirugarren sektoreko zenbait entitatek sortu zutela Sareginez entitateen sarea, irabazi asmorik gabeko hogeiren bat erakunderen artean, boluntarioen laguntzarekin, eta sare horrek lanean dihardu eta jarraitzen du modu oso aktiboan ekintzak burutzen. Beste aurrekari garrantzitsu bat izan zen Gipuzkoan entitate sozialak koordinatzeko Sargi elkartea sortzea; horrek ere sarean lanean dihardu.

Gizarte zerbitzuetan eskumena duen Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuak gizarte ekimeneko parte hartzea sustatzeko egiten dituen ekintzei dagokienez, azpimarratu behar da Elkar-Ekin 2022-2026 Gipuzkoako II. Gizarteratzeko Plana egin izana, jarraipena ematen baitio aurreko planaren ebaluazioarekin hasi zen lanari eta oinarritzen delako Gipuzkoako gizarteratzeko gizarte zerbitzuen sarean inplikatutako eragileei. Plan hori oinarritzen da, batetik, Foru Aldundiaren lidergoan eta, bestetik, entitate eta erakunde ugariren borondatezko aliantzan. Era berean, Foru Aldundiaren Etorkizuna Eraikiz ekimena prozesu sistemiko bat sustatzen ari da, administrazioaren eta herritarren eta eragile sozial eta ekonomikoen arteko harreman eredu berri bat susta-

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

## DEPARTAMENTO DE POLÍTICAS SOCIALES

*Decreto Foral 11/2023, de 13 de junio, por el que se crea y regula la Mesa de Diálogo Civil de Gipuzkoa.*

El artículo 7 de la Ley 6/2016, de 12 de mayo, del Tercer Sector Social de Euskadi, que regula el Diálogo Civil, contiene un mandato a las diputaciones forales para que, a través de los instrumentos oportunos, mantengan un diálogo de las mismas características que el de la Mesa de Diálogo Civil de Euskadi, pero con las redes del tercer sector social con actividad en sus respectivos territorios.

Por otra parte, el artículo 18 de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa, dispone que la potestad reglamentaria de la Diputación Foral se extiende a la facultad de aprobar decretos forales de desarrollo de las leyes de la Comunidad Autónoma o del Estado. Y añade que, en todo caso, corresponde a la Diputación Foral la facultad de aprobar reglamentos de carácter organizativo.

En consecuencia, compete a la Diputación Foral, mediante decreto foral, dar cumplimiento al mandato contenido en la Ley 6/2016, de 12 mayo, antes citada, para crear y regular la Mesa del Diálogo Civil de Gipuzkoa, que se configura como un instrumento de diálogo y de participación institucional del tercer sector de acción social en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, correspondiendo su aprobación al Consejo de Gobierno Foral, de acuerdo con lo previsto en el artículo 31.1.f) de la mencionada Norma Foral 6/2005, de 12 de mayo.

Históricamente, el tercer sector social de Gipuzkoa ha solicitado participar en la elaboración de planes y programas de la Diputación Foral de Gipuzkoa. La sociedad guipuzcoana se destaca por el trabajo de las entidades sin ánimo de lucro del tercer sector de intervención social, la acción voluntaria y la solidaridad organizada. Así, puede recordarse cómo en 2004 diferentes entidades del tercer sector con voluntariado crearon la red de entidades Sareginez, que está formada por más de una veintena de entidades sin ánimo de lucro y cuenta con personas voluntarias, una red que sigue trabajando y realizando acciones de una manera muy activa. Otro antecedente relevante lo constituye la creación de la asociación para la coordinación de entidades sociales de Gipuzkoa, Sargi, que también sigue trabajando en red en la actualidad.

En cuanto a las acciones realizadas desde el departamento de la Diputación Foral de Gipuzkoa competente en materia de servicios sociales, con el objeto de promover e impulsar la participación de la iniciativa social, es reseñable la elaboración del II Plan de Inclusión Social de Elkar-Ekin 2022-2026, que da continuidad a un proceso de trabajo iniciado con la evaluación del plan anterior y que está basado en la consulta a los diversos agentes implicados en la red de servicios sociales de inclusión de Gipuzkoa. Ese Plan se basa, por una parte, en el liderazgo de la Diputación Foral y, por otra, en una alianza voluntaria de un amplio elenco de entidades y organismos. A su vez, la iniciativa de la Diputación Foral denominada Etorkizuna Eraikiz está pro-

EK\CV GAO-I-2023-04606

tzen duena, lankidetza gobernantza baten esparruan oinarritutako eredu bat, hain zuzen.

Orain arte aipatutako ekimenez gain, Gipuzkoako Lurralde Historikoan gizarte partaidetzako beste foro espezifiko batzuk daude, hala nola Adinekoen Kontseilua, Desgaitasuna duten Pertsonen Kontseilua edo Gipuzkoako Lurralde Historikoko Gizarteratzeko Aholku Kontseilua –guztiak ere gizarte zerbitzuen arloan eskumena duen departamentuari atxikiak– edo Herritarren Partaidetzarako Gizarte Kontseilua –gobernantzaren arloan eskumena duen departamentuaren mendekoa–.

Arestian adierazitakoaren eta Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak lurralde historikoetako foru organoei agindutako eskumenen ondorioz, lege horren V. tituluan arautzen baita ekimen pribatuaren esku-hartzea, lankidetzako formulak definituta eta irabazi asmorik gabeko gizarte ekimenari babes publikoa ematea ezarrita, Gipuzkoako Foru Aldundiak zenbait ekintza aitzindari egin ditu Gipuzkoan Elkarrizketa Zibilerako Mahaia sortzeko, eta ekintza horietatik dator foru dekretu hau.

Aurrekari horiekin, foru dekretu honen helburua da sustatzea eta laguntzea Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta hirugarren sektore sozialaren arteko elkarrizketa, lankidetzazko gobernantzarako, Gipuzkoako Elkarrizketa Zibilaren Mahairen bidez, politika publikoen diseinuan eta gauzatzean benetako eragina izango duten akordioak eraikitzeko eta hirugarren sektore sozialari aukera eman diezaioten horien inguruko konpromisoa hartzeko, epe eta modu egokian jasotako informaziotik eta partaidetza efektibotik abiatuta.

Hala, testuaren lehen artikuluetan antolatzen dira xedea eta helburuak, izaera eta adskripzioa, eta argi geratzen da Gipuzkoako Elkarrizketa Zibilerako Mahaia eratzen dela Gipuzkoako hirugarren sektore sozialeko eragileek gizarte zerbitzuetan eskumena duen departamentuaren politika publikoen diseinu eta ebaluazioan parte hartzea bideratzeko gainerako kontseilu, batzorde, mahai eta foroen osagarri gisa.

Hasierako xedapen orokorretan errepikatzen dira Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legeko zenbait definizio, legearen printzipioak zuzenean eta osorik aplika baitaitezke.

Foru dekretuaren hasierako xedapen orokorretan aipatzen dira xedea, organo berriaren izaera, gizarte ekintzako eta elkarrizketa zibileko hirugarren sektorearen kontzeptua, eta, ondoren, foru dekretu honetan arautzen dira Gipuzkoako Elkarrizketa Zibilerako Mahaiaren antolamendua eta funtzionamendua, adierazita osaera eta erregimen orokorra, eta bereizita kide bakarreko eta kide anitzeko hainbat organo. Kide anitzeko organoen artean aipatu behar dira Osoko Bilkura, Batzorde Iraunkorra eta batzordeak; aldiz, kide bakarreko organoak dira ohikoak: lehendakaria, lehendakariordea eta kideak, baita idazkaria ere. Foru dekretuan jasotzen da kanpoko laguntza teknikoa izateko aukera –ez da derrigorrezko organoa–, Mahaiari laguntza teknikoa eta dinamizazioa emateko.

Kontuan izanda Gipuzkoako Elkarrizketa Zibileko Mahaiak burutu beharreko zereginak, egoki da Gipuzkoako Foru Aldundian gizarte zerbitzuen arloan eskumena duen departamentuari atxikita egotea.

Halaber, adierazi behar da foru dekretu honek betetzen dituela erregulazio onaren printzipioak; hartara, arautzeko eta erakundea antolatzeko gaitasuna baliatuta, Gipuzkoako Foru Aldundia jarduten da beharraren, eraginkortasunaren, proportzionaltasunaren, segurtasun juridikoaren, gardentasunaren eta efizientziaren printzipioen arabera.

moviendo un proceso sistémico que fomenta un nuevo modelo de relación entre la administración y la ciudadanía y los agentes sociales y económicos, modelo basado en el marco de una gobernanza colaborativa.

Además de las iniciativas hasta ahora mencionadas, existen dentro del territorio histórico de Gipuzkoa otros foros específicos de participación social como son el Consejo de las Personas Mayores, el Consejo de Personas con Discapacidad o el Consejo Asesor para la Inclusión social del Territorio Histórico de Gipuzkoa, todos ellos adscritos al Departamento competente en materia de servicios sociales, o el Consejo Social para la Participación Ciudadana, dependiente del Departamento competente en materia de gobernanza.

Como consecuencia de lo descrito anteriormente y de las competencias encomendadas a los órganos forales de los Territorios Históricos por la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales, en cuyo título V se regula la intervención de la iniciativa privada definiendo fórmulas de colaboración y estableciendo un claro apoyo público a la iniciativa social sin ánimo de lucro, la Diputación Foral de Gipuzkoa ha venido realizando diferentes acciones precursoras encaminadas a la creación de una Mesa de Diálogo Civil en Gipuzkoa, acciones que culminan en este decreto foral.

Con todos estos antecedentes, el objetivo del presente decreto foral es el de impulsar y facilitar la interlocución entre la Diputación Foral de Gipuzkoa y el tercer sector social en clave de gobernanza colaborativa, a través de la Mesa de Diálogo Civil de Gipuzkoa, con el fin de construir acuerdos que tengan verdadera influencia en el diseño y ejecución de las políticas públicas y que permitan al tercer sector social comprometerse con las mismas, a partir de una información recibida en tiempo y forma y de una participación efectiva.

Así, en los primeros artículos del texto se ordena su objeto y fines, naturaleza y adscripción, quedando claro que la Mesa de Diálogo Civil de Gipuzkoa se concibe como espacio complementario de los diferentes consejos, comisiones, mesas y foros que canalizan la participación de los distintos agentes del tercer sector social de Gipuzkoa en el diseño y evaluación de las políticas públicas del departamento competente en materia de servicios sociales.

En las disposiciones generales iniciales se reproducen algunas de las definiciones de la Ley 6/2016, de 12 de mayo, del Tercer Sector Social de Euskadi, cuyos principios son directa y plenamente aplicables.

Tras las disposiciones generales iniciales sobre el objeto del decreto foral, sobre la naturaleza del nuevo órgano, sobre la acotación del concepto de tercer sector de acción social y del diálogo civil, en este decreto foral se regula la organización y el funcionamiento de la Mesa de Diálogo Civil de Gipuzkoa de forma sencilla, señalando primeramente su composición y régimen general y diferenciando diversos órganos colegiados y unipersonales. Dentro de los órganos colegiados deben citarse el Pleno, la Comisión Permanente y las comisiones, mientras que los órganos unipersonales son los tradicionales; presidencia, vicepresidencia y vocalías, que se complementan con la secretaría. El decreto foral también incorpora la opción, no como órgano preceptivo, de una asistencia técnica externa que cumpla con los cometidos de soporte técnico y dinamización de la Mesa.

Teniendo en cuenta las tareas a abordar por la Mesa de Diálogo Civil de Gipuzkoa, se considera adecuado que esté adscrito al departamento de la Diputación Foral de Gipuzkoa que tiene encomendada el área de servicios sociales.

Asimismo, debe indicarse que el presente decreto foral se ajusta a los principios de buena regulación de modo que, en el ejercicio de la potestad reglamentaria y de autoorganización, la Diputación Foral actúa de acuerdo con los principios de necesidad, eficacia, proporcionalidad, seguridad jurídica, transparencia y eficiencia.

EK\CV GAO-I-2023-04606

Foru dekretu hau premiaren eta efikaziaren printzipioetara egokitzeari dagokionez, foru dekretuak Euskadiko hirugarren sektore sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legearen 7. artikuluan du oinarria, bertan arautzen baita Elkarrizketa Zibila eta aldundiei mandatua egiten baitzaie egoki diren tresnen bidez elkarrizketak izan ditzaten Euskadiko Elkarrizketa Zibilerako Mahaiaren pare, baina beren lurraldeetan jarduten diren hirugarren sektore sozialeko sareekin.

Halaber, foru dekretu honetan jasota dago atariko honetan adierazitako helburuak lortzeko ezinbesteko erregulazioa.

Foru dekretu honek betetzen du segurtasun juridikoaren printzipioa ere, bere edukia bat datorrelako Euskadiko hirugarren sektore sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legean eta gainerako ordenamendu juridikoan ezarritakoarekin, inolako inkoherentzia edo kontraesanik gabe.

Halaber, adierazi behar da foru dekretu honetan ezarritako kargak egokiak direla ezarritako helburua betetzeko eta, ondorioz, osaerak betetzen du eraginkortasunaren printzipioa.

Azkenik, eta gardentasunaren printzipioari dagokionez, entzunaldia, kontsulta eta jendaurreko erakustaldiaren izapideen bidez arau hau egiteko prozesuaren dokumentazioa eskuratzeko eta aktiboki parte hartzeko aukera eman zaie arauaren balizko hartzaileei.

Zehazki, alorrean ordezkaritza duten subjektu eta taldeekin kontsultatu da eta ez dute proposamenik egin. Ondoren ireki den entzunaldi eta informazio publikoko epean entitate eta elkarteen ekarpenak jaso dira, eta horietako batzuk kontuan hartu dira, Gizarte Politiketako Departamentuaren ustez, foru dekretuaren idazketa eta testua hobetze aldera.

Horiek horrela, Gizarte Politiketako foru diputatuak proposaturik, eta Diputatuen Kontseiluaren gaurko bileran eztabaidatu eta onartu ondoren,

XEDATZEN DUT

*1. artikulua. Xedea.*

Foru dekretu honen xedea da Gipuzkoako Elkarrizketa Zibilerako Mahaia sortzea eta arautzea.

*2. artikulua. Izaera eta helburuak.*

1. Gipuzkoako Elkarrizketa Zibilerako Mahaia eratzen da Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Gipuzkoako hirugarren sektore sozialeko sareen arteko elkarrizketa zibilerako organo gisa, aholku organo formarekin eta helburu hauekin:

a) Elkarrekin definitzea hirugarren sektore sozialera zuzendutako politiken ildo nagusiak, baita hirugarren sektore sozialeko entitateen eta Foru Aldundiaren artean adostutako gainerako politika publikoak ere.

b) Sustatzea hirugarren sektore sozialaren lan eremuen inguruko hausnarketa partekatuak.

c) Bideratzea lurraldeko hirugarren sektore sozialeko entitateen eskaerak eta, horien bitartez, esku-hartze sozialaren hartzaile eta protagonista diren pertsona, familia, kolektibo eta komunitateenak; iritzia emateko eta politika publikoetan parte hartzeko aukera ematea.

2. Gipuzkoako Elkarrizketa Zibilerako Mahaia elkarrizketarako eta lankidetzarako gune egonkorra da, noranzko bikoa eta operatiboa, eta, beraz, bertatik sortzen dira proiektuak eta lankidetzako beste ekimen batzuk.

3. Gipuzkoako Elkarrizketa Zibilerako Mahaia atxikitzen zaio Gipuzkoako Foru Aldundian gizarte zerbitzuetako eskumena duen departamentuari, administrazio kudeaketaren ondorioetarako, eta departamentu horretako titularrak izendatzen duen zuzendaritzari dagokio funtzionatzeko behar duen laguntza ematea.

Respecto a la adecuación del presente decreto foral a los principios de necesidad y eficacia, el decreto foral encuentra su fundamento en el artículo 7 de la de la Ley 6/2016, de 12 de mayo, del Tercer Sector Social de Euskadi, que regula el Diálogo Civil y que contiene un mandato a las diputaciones forales para que, a través de los instrumentos oportunos, mantengan un diálogo de las mismas características que el de la Mesa de Diálogo Civil de Euskadi, pero con las redes del tercer sector social con actividad en sus respectivos territorios.

Asimismo, se considera que el presente decreto foral contiene aquella regulación imprescindible para la consecución de los objetivos indicados en este preámbulo.

El presente decreto foral también se ajusta al principio de seguridad jurídica en tanto que su contenido es coherente con lo dispuesto en la Ley 6/2016, de 12 de mayo, del Tercer Sector Social de Euskadi y con el resto del ordenamiento jurídico, no produciéndose con el mismo incoherencias ni contradicciones.

Asimismo, debe señalarse que las cargas establecidas en este decreto foral resultan adecuadas para alcanzar la finalidad perseguida, por tanto, su configuración se ajusta al principio de eficiencia.

Por último, y atendiendo al principio de transparencia, a través de los trámites de audiencia, consulta e información pública se ha posibilitado el acceso a la documentación del proceso de elaboración de esta norma y la participación activa de los potenciales destinatarios de la norma.

Concretamente, se ha consultado a los sujetos y organizaciones representativas del sector sin haber recibido propuesta alguna. En el plazo de audiencia e información pública abierto posteriormente ha habido aportaciones de entidades y asociaciones, siendo tomadas en consideración algunas de dichas aportaciones por mejorar, a juicio del Departamento de Políticas Sociales, la redacción y el texto del decreto foral.

En su virtud, a propuesta de la diputada foral del Departamento de Políticas Sociales, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno Foral en sesión de esta misma fecha

DISPONGO

*Artículo 1. Objeto.*

El objeto del presente decreto foral es la creación y regulación de la Mesa de Diálogo Civil de Gipuzkoa.

*Artículo 2. Naturaleza y fines.*

1. La Mesa de Diálogo Civil de Gipuzkoa se constituye como órgano de diálogo civil entre la Diputación Foral de Gipuzkoa y las redes del tercer sector social de Gipuzkoa, de naturaleza consultiva, a fin de:

a) Codefinir las líneas principales de las políticas dirigidas al tercer sector social, así como del resto de políticas públicas acordadas entre las entidades del tercer sector social y la propia Diputación Foral.

b) Impulsar reflexiones compartidas sobre las áreas de trabajo del tercer sector social.

c) Dar cauce a las demandas de las entidades del tercer sector social del territorio y, a través de ellas, de las personas, familias, colectivos y comunidades destinatarias y protagonistas de la intervención social, a expresar su opinión y participar en las políticas públicas.

2. La Mesa de Diálogo Civil de Gipuzkoa es un espacio de diálogo y cooperación de carácter estable, bidireccional y operativo, y del que surgen, por tanto, proyectos y otras iniciativas en colaboración.

3. La Mesa de Diálogo Civil de Gipuzkoa se adscribe al Departamento de la Diputación Foral de Gipuzkoa competente en servicios sociales a efectos de gestión administrativa, correspondiendo a la dirección que designe la persona titular del citado departamento la prestación de la asistencia necesaria para su funcionamiento.

EK\CV GAO-I-2023-04606

*3. artikulua. Ekintza sozialeko hirugarren sektorea.*

1. Gizarte ekimeneko erakundeak dira, Gipuzkoako hirugarren sektore sozialeko parte direnak, Gipuzkoako gizartetik sortu direnak eta Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legearen 3. artikuluan ezarritako ezaugarriak dituztenak.

2. Gizarte ekintzako hirugarren sektorearen parte dira erakunde pribatu, antolatu eta irabazi asmorik gabeak, nagusiki jarduten direnak elkartasun soziala sustatzen, baita pertsonen parte-hartze soziala, giza eskubideak, inklusioa eta kohesio soziala sustatzen ere Gipuzkoako Lurralde Historikoaren esparruan.

3. Esku-hartze sozialeko jarduerak dira Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legearen 4. artikuluaren 1 eta 2. ataletan ezarritakoak.

4. Foru dekretu honen ondorioetarako, Gipuzkoako hirugarren sektore sozialeko sareak izango dira Gipuzkoako hirugarren sektore sozialeko bigarren mailako eta goragoko erakundeak, beste batzuk ordezkatzen dituztenak, baita Gipuzkoako hirugarren sektore sozialeko esku-hartze zuzena duten erakundeak ere, kolektibo jakin bat ordezkatzen dutenak, hori ordezkatzen duen sarerik ez badago Gipuzkoako Lurralde Historikoan.

Kontzeptu horretan sartzen dira Euskadiko hirugarren sektore sozialeko sareak, beren egitura territorializatua ez dutenak, baldin eta Gipuzkoan eta gizarte politiken eremu espezifikoan ez badago aurreko paragrafoan aipatu diren ezaugarriak dituen hirugarren sektore sozialeko erakunderik.

5. Aurreko ataletan aipatutako erakundeek izena emanda egon beharko dute maiatzaren 12ko 6/2016 Legearen 5. artikuluan jasotako Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko Erakundeen Erroldan.

*4. artikulua. Elkarrizketa zibila.*

Gipuzkoako Elkarrizketa Zibilerako mahaiaren bidez gauzatzen den elkarrizketa zibilaren printzipioaren arabera, esku-hartze sozialaren protagonista diren pertsona, familia, kolektibo eta komunitate hartzaile eta protagonistek eskubide hauek izango dituzte:

a) Esku-hartze sozialaren eremuko politika publikoetan parte hartzea, esku-hartze hori Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legeak 4.1 artikuluan xedatutakoaren arabera ulertuta; betiere Gipuzkoako Foru Aldundiari, batez ere gizarte politiken ardura duen departamentuari, eta, hala badagokio, Batzar Nagusiei dagozkien erabaki ahalmenei kalterik egin gabe. Hori guztia beste erakunde eta sare batzuek edozein foru departamenturen kontsulta organoetan edo partaidetza ekimenetan parte hartzea eragotzi gabe.

b) Esku-hartze sozialaren eremuko jarduerei buruzko iritziak ematea. Administrazioak elkarrizketa irekia, gardena eta ohikoa izango du haiekin, Gipuzkoako Elkarrizketa Zibilerako Mahaiaren bitartez eta, hala badagokio, kontsulta organoetan edo horretarako garatzen diren prozesu espezifikoetan parte hartuz.

*5. artikulua. Gipuzkoako Elkarrizketa Zibilerako Mahaiaren funtzioak.*

Kontsultakoa denez, Gipuzkoako Elkarrizketa Zibilerako Mahaiari dagokio besteak beste, funtzio hauek burutzea:

a) Foru dekretu honetan aipatutako gaiei buruz irizpenak, ebazpenak, gomendioak edo txostenak egitea, bere kabuz edo Foru Aldundiak eskatuta.

b) Gipuzkoako Foru Aldundiari proposamenak egitea bere esku-hartzearen xede diren kolektiboei zuzendutako politiken lerro estrategikoen eta jarduteko lehentasunen inguruan, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren esparruan.

*Artículo 3. Tercer sector de acción social.*

1. Son organizaciones de iniciativa social que forman parte del tercer sector social de Gipuzkoa, las organizaciones surgidas de la sociedad de Gipuzkoa que reúnen las características establecidas en el artículo 3 de la Ley 6/2016, de 12 de mayo, del Tercer Sector Social de Euskadi.

2. Se define como tercer sector de acción social el conjunto de entidades de carácter privado, formalmente organizadas y con ausencia de ánimo de lucro, que se dediquen prioritariamente a la promoción de la solidaridad social, así como al impulso de la participación social de las personas, los derechos sociales, la inclusión y la cohesión social en el ámbito del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

3. Son actividades de intervención social las establecidas en los apartados 1 y 2 del artículo 4 de la Ley 6/2016, de 12 de mayo, del Tercer Sector Social de Euskadi.

4. A los efectos del presente decreto foral se entienden por redes del tercer sector social de Gipuzkoa las organizaciones del tercer sector social de Gipuzkoa de segundo nivel y superiores, representativas de otras, así como las organizaciones de intervención directa del tercer sector social de Gipuzkoa, que sean representativas de un determinado colectivo, cuando no exista una red que lo represente en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Se incluyen dentro de tal concepto las redes del tercer sector social de Euskadi que no tengan territorializada su estructura, siempre que no exista en Gipuzkoa y en el específico ámbito de las políticas sociales una organización del tercer sector social con las características que se acaban de referir en el párrafo anterior.

5. Las entidades citadas en los apartados anteriores deberán estar inscritas en el Censo de Organizaciones del Tercer Sector Social de Euskadi contemplado en el artículo 5 de la Ley 6/2016, de 12 de mayo.

*Artículo 4. Diálogo civil.*

En virtud del principio de diálogo civil que se instrumenta mediante la Mesa de Diálogo Civil de Gipuzkoa, las personas, familias, colectivos y comunidades destinatarias y protagonistas de la intervención social, tendrán derecho a:

a) Participar en las políticas públicas del ámbito de la intervención social, entendida esta según lo que dispone el art. 4.1 de la Ley 6/2016, de 12 de mayo, del Tercer Sector Social, sin menoscabo de las facultades de decisión que corresponden a la Diputación Foral de Gipuzkoa, preferentemente al departamento responsable en materia de políticas sociales, y, en su caso, a las Juntas Generales. Todo ello entendido sin perjuicio de la participación de otras entidades y redes en órganos consultivos o iniciativas de participación de cualesquiera departamentos forales.

b) Expresar sus opiniones sobre las actividades del ámbito de la intervención social. La Administración mantendrá con ellas un diálogo abierto, transparente y habitual a través de la Mesa de Diálogo Civil de Gipuzkoa y, en su caso, mediante la participación en órganos consultivos o en procesos específicos que se desarrollen a tal efecto.

*Artículo 5. Funciones de la Mesa de Diálogo Civil de Gipuzkoa.*

De acuerdo con su naturaleza consultiva, a la Mesa de Diálogo Civil de Gipuzkoa le corresponde la realización, entre otras, de las siguientes funciones:

a) Elaborar dictámenes, resoluciones, recomendaciones o informes, por propia iniciativa o a petición de la Diputación Foral sobre las materias reseñadas en el presente decreto foral.

b) Formular propuestas a la Diputación Foral de Gipuzkoa sobre líneas estratégicas y prioridades de actuación de las políticas dirigidas a los colectivos objeto de su intervención, en el ámbito del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

EK\CV GAO-I-2023-04606

c) Departamentuaren plangintza tresnen ebaluazioari ekarpenak egitea bere jardun esparruan.

d) Hirugarren sektore sozialari buruzko ikerketak edo azterlanak egitea, Gipuzkoako Elkarrizketa Zibilerako Mahaiaren interes bereziko eremu zehatzetan.

e) Gipuzkoako Foru Aldundiak eskatuta, lotesleak izango ez diren txostenak egitea gai hauek berariaz jorratzen dituzten arau-ekimenei buruz: gizarte-partaidetza eta boluntariotza, elkartasunaren sustapena, gizarte-eskubideak, inklusioa, gizarte-kohesioa, aniztasuna eta gizarteratzea eta enplegua.

*6. artikulua. Gipuzkoako Elkarrizketa Zibilerako Mahaiaren osaera.*

Hauek dira Gipuzkoako Elkarrizketa Zibilerako Mahaiko kideak:

— Gipuzkoako Foru Aldundia.

— Foru dekretu honen 3. artikuluaren laugarren atalean aipatutako Gipuzkoako hirugarren sektore sozialeko sareak.

*7. artikulua. Mahaiko kideen agintaldia.*

1. Gipuzkoako Elkarrizketa Zibilerako Mahaia hirugarren sektore sozialeko sareen ordezkari gisa osatzen duten pertsonen agintaldia lau urtekoa izango da, eta agintaldia amaitzean berriz hautatu ahal izango dira. Aipatutako epea igaro ondoren, beren eginkizunak betetzen jarraituko dute, beren ondorengoaren izendapenak ondorioak izan arte.

2. Lehendakariaren eta beren karguagatik Mahaiko kide diren gainerako kideen agintaldia beren karguetan dauden bitartekoa izango da.

3. Mahaikideen agintaldia iraunaldia amaitu baino lehen amaitu ahal izango da, honako kasu hauetan:

a) Ezeztatzea edo kargutik kentzea Gipuzkoako Foru Aldundiaren gizarte zerbitzuetan eskumena duen departamentuko titularrak erabakita, ofizioz edo izendatzea proposatu zuen sare edo entitateak eskatuta.

b) Karguagatik izendatu zituzten pertsonek izendapena eragin zuen izaera galtzea.

c) Uko egitea, organoko lehendakariari aurkeztuta.

d) Heriotza.

e) Kargu publikoetan jarduteko desgaitzen edo eteten duen ebazpen judizial edo administratibo irmoa izatea.

4. Aurreko atalean aurreikusitako kasuetan, ordezkapenak izango dira ordezkatutako pertsonaren agintaldiari geratzen zaion denborarako.

5. Artikulu honen lehen atalean lau urteko agintaldia aurreikusi den arren, bi urtero Gipuzkoako Foru Aldundian gizarte zerbitzuetan eskumena duen departamentuko titularrak ebaluatuko du Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren sareen egoera, bereziki sare sozial berriak eratu diren edo lehendik badagoenen bat desagertu den edo jarduteari utzi dion. Ebaluazio hori egingo da izendapenak adosteko, xedapen honen 9. artikuluan ezarritako prozeduraren eta mugen baitan.

*8. artikulua. Emakumeen eta gizonen presentzia orekatua kide anitzeko organoetan.*

Gipuzkoako Elkarrizketa Zibilerako Mahaiko kide anitzeko organo guztietako kide izango diren pertsonak izendatzerakoan, emakumeen eta gizonen presentzia orekatua izan beharko da, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako martxoaren 9ko 2/2015 Foru Arauarekin bat etorriz.

c) Realizar aportaciones a las evaluaciones de los instrumentos de planificación del Departamento en el ámbito objeto de su actuación.

d) Realizar investigaciones o estudios relativos al tercer sector social y en ámbitos específicos de especial interés de la Mesa de Diálogo Civil de Gipuzkoa.

e) Emitir informes, que no tendrán carácter vinculante, a solicitud de la Diputación Foral de Gipuzkoa, sobre iniciativas normativas cuya materia esté específicamente relacionada con la participación social y el voluntariado, la promoción de la solidaridad, los derechos sociales, la inclusión, la cohesión social, la diversidad e integración social y el empleo.

*Artículo 6. Composición de la Mesa de Diálogo Civil de Gipuzkoa.*

Forman parte de la Mesa de Diálogo Civil de Gipuzkoa:

— La Diputación Foral de Gipuzkoa.

— Las redes del tercer sector social de Gipuzkoa citadas en el apartado cuarto del artículo 3 de este decreto foral.

*Artículo 7. Mandato de las personas integrantes de la Mesa.*

1. La duración del mandato de las personas integrantes de la Mesa de Diálogo Civil de Gipuzkoa en representación de las redes del tercer sector social será de cuatro años, pudiendo ser reelegidas al término de su mandato. Una vez transcurrido el plazo referido, continuarán desempeñando sus funciones hasta que surta efecto el nombramiento de quien les suceda.

2. El mandato de la Presidencia y del resto de personas integrantes de la Mesa por razón de su cargo se extenderá durante el tiempo en que permanezcan en sus cargos.

3. El mandato de las personas integrantes de la Mesa podrá expirar antes de la finalización de su período de duración en los siguientes supuestos:

a) Revocación o cese acordado por la persona titular del Departamento de la Diputación Foral de Gipuzkoa competente en materia de servicios sociales, de oficio o a instancia de la red u organización que propuso su nombramiento.

b) Pérdida de la condición en virtud de la cual fue nombrada, en aquellas personas que lo fueran por razón de su cargo.

c) Renuncia, presentada ante el presidente o presidenta del órgano.

d) Fallecimiento.

e) Resolución firme, de carácter judicial o administrativa, que conlleve la inhabilitación o suspensión para cargos públicos.

4. En los supuestos previstos en el apartado anterior, las sustituciones que hayan de producirse lo serán por el tiempo que reste del mandato de la persona sustituida.

5. Sin perjuicio del mandato de cuatro años previsto en el apartado primero del presente artículo, cada dos años se realizará, por la persona titular del departamento de la Diputación Foral de Gipuzkoa competente en materia de servicios sociales, una evaluación de la situación de las redes del Tercer Sector Social de Euskadi, especialmente sobre la constitución de nuevas redes sociales o la desaparición o inactividad de alguna de las ya existentes. Tal evaluación se realizará en orden a acordar las designaciones oportunas con arreglo al procedimiento y límites establecidos en el artículo 9 de la presente disposición.

*Artículo 8. Presencia equilibrada de mujeres y hombres en los órganos colegiados.*

En la designación de las personas que han de formar parte de todos los órganos colegiados de la Mesa de Diálogo Civil de Gipuzkoa deberá tener una presencia equilibrada de mujeres y hombres, de conformidad con la Norma Foral 2/2015, de 9 de marzo, para la igualdad de mujeres y hombres.

EK\CV GAO-I-2023-04606

*9. artikulua. Osoko Bilkura.*

1. Gipuzkoako Elkarrizketa Zibilerako Mahaiaren Osoko Bilkura honako pertsona hauek osatuko dute:

a) Lehendakaria Gipuzkoako Foru Aldundian gizarte zerbitzuen arloan eskumena duen departamentuko titular den diputatua izango da.

b) Lehendakariordea, Mahaiko kide diren Gipuzkoako hirugarren sektore sozialeko sareko ordezkariek beren artean izendatutako pertsona izango da.

c) Gipuzkoako Foru Aldundia ordezkatzen duten lau kide, gizarte zerbitzuen arloan eskumena duen departamentuko foru diputatu titularrak izendatuak; horietako bat herritarren partaidetzaren arloan eskumena duen departamentuari dagokio. Halaber, kide horietako bat Euskadiko Udalen Elkartea-Asociación de Municipios Vascos Eudel erakundeak proposatuta ere izendatu ahal izango da.

d) Hirugarren sektore sozialeko sare bakoitzaren ordezkari bat; sare horiek proposatuta, gizarte zerbitzuen arloan eskumena duen departamentuko foru diputatu titularrak izendatuko ditu. Hirugarren sektore sozialeko sareek ordezkoak ere izendatu beharko dituzte, titularrak ez daudenean haien funtzioak betetzeko.

e) Bi ordezkari, Gipuzkoako hirugarren sektore sozialeko erakundeek proposatuak, baldin eta aurreko letran aipatutako sareetakoak ez badira, txikiak badira eta sareek ordezkatzen dutenaz bestelako eremu batekoak badira.

f) Idazkaria.

2. Departamentuko titularrak hirugarren sektore sozialen sareko ordezkariak izendatzeko, aintzat hartuko dira ordezkagarritasuna, gizarte zerbitzuen esparruan duten ekintza eremuen aniztasuna eta genero ikuspegia. Ordezkagarritasun maila zehazteko kontuan izango dira elkartutako pertsonen kopurua, Gipuzkoako Lurralde Historikoan duen hedadura eta departamentuko titularrak libreki haztatutako beste edozein datu. Edonola ere, gehienez ere 25 sare egongo dira ordezkatuta.

3. Idazkaritzaren eta kanpoko laguntza teknikoaren ordezkariak bileretara joango dira, hitzarekin baina botorik gabe.

4. Osoko Bilkuretara beste pertsona batzuk ere joan ahal izango dira, baldin eta lehendakariak, bere kabuz edo Osoko Bilkurako kideek eskatuta, egoki jotzen badu aztertuko diren gaien inguruan duten ezagutzagatik. Pertsona horiek hitza izango dute, baina botorik ez.

5. Gipuzkoako Elkarrizketa Zibilerako Mahaiaren Osoko Bilkura urtean hiru aldiz bilduko da, gutxienez, ohiko bilkuran, eta ezohikoan, lehendakariak bere ekimenez edo Osoko Bilkurako kideen erdiak eskatuta deitzen duenean.

6. Osoko Bilkurari dagozkio hauek:

— Jardueraren urteko memoria onartzea.

— Egoki bada, barne funtzionamenduko erregelamendua onartzea.

— Batzordeak sortzea, haien eginkizunak zehaztea eta batzordekideak izendatzea.

— Batzorde Iraunkorreko kideak izendatzea.

— Gipuzkoako Elkarrizketa Zibilerako Mahaiaren eginkizun guztiak, beste organo batzuei berariaz esleitu ez bazaizkie.

7. Lehendakariari dagokio, Idazkariaren bidez, bilerak deitzea, gutxienez hamar egun baliodunekо aurrerapenarekin, eta gai zerrenda jartzea. Deialdia egiteko epea berrogeita zortzi ordura murriztu ahal izango da urgentziazko kasuetan.

*Artículo 9. Pleno.*

1. El Pleno de la Mesa de Diálogo Civil de Gipuzkoa constituye el órgano que estará formado por las siguientes personas:

a) La Presidencia, que recaerá en el diputado o diputada foral titular del departamento de la Diputación Foral de Gipuzkoa competente en materia de servicios sociales.

b) La Vicepresidencia, que se elegirá entre las personas representantes de las redes del tercer sector social de Gipuzkoa que integren la Mesa, y designada por estas.

